ELGOIBAR - 792. zenb. - XVIII urtea - 2011-08-23

BARREN

TOKIKOM

# Hasi dira jai doinuak


















## ZURE ETXEBIZITZA BERRIA **ELGOIBARREN**

**UBITARTE**
BIZIGUNEA

- 32 Etxebizitza eta garaje berri ingurune paregabean
- Etxebizitza zure neurrira egokitzeko aukera
- Duplex atikoak solariumarekin
- Behe solairuak terraza handi eta txokoekin
- Diseinuzko sukalde ekipatuak
- Lehen salmentetarako aukera bereziak

**Garajeak salgai.**
**Ondo pasa jaiak!**

943 744 303
www.ubitarte.com

SAN BARTOLOME 16.NEAN GAUDE. ETOR ZAITEZ!

# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*



**Arantxa** eta **Marian**
FRUTADENDA
Tel.: 943 744 440
Zure fruta eta barazkia dei batean etxean!



**M. Angeles**
FRUTADENDA
Tel.: 605 674 428
689 989 487
Zure etxera banatzen dugu!



**MARI** HARATEGIA
Tel.: 943 743 681



**Amaia** FRUTADENDA
Tel.: 635 704 712
Etxeko banaketa, fruta eta
barazki freskoak zure etxean!



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak
Tel.: 635 008 496
Salmeta zuzena!
Baserritik etxera!



**ZABALA** FRUTADENDA
Tel.: 943 744 295
Etxeko salmenta zuzena!



## OSTEGUNERO OTARRE BAT ZOZKETATUKO DUGU!

*San Bartolome*
*jai zoriontsuak!*




Jai zoriontsuak!

EAJ PNV

EUZKO GAZTEDI

Elgoibarko EGI

# NO-DOa gogoan

Gogoratzen dut oraindik Errosario kaleko zinema zaharrean NO-DOa ikustarazten zigutenean, palio azpian, nazional-katolizismoaren “adalid”-ak, hots, garaiko agintari falangistak, Goardia Zibilak eta elizaren ordezkariak, denak batera, nola irteten ziren prozesioetan.

Ni umea nintzen, eta pipak jaten ibiltzen ginen, elkarri bultzaka, eta paper bolatxoak aurrekoei botatzen. Ez genuen kasu gehiegirik egiten, eta egia esan, ez dut gogoratzen Elgoibarren ere horrelakorik egiten zen edo ez; baina pentsatzen dut baietz, batez ere, gaur egun, herriko jaietan, horrelako zerbait egiten dela ikusita.

Erlijioa eta botere politikoaren arteko lotura ez da, ordea, Frankok asmatutako gauza, askoz ere lehenagokoa baizik. San Agustinek esan zuen orain dela 1700 urte, zeruko bakea lortzeko, munduko bakea babestea zela elizaren zeregina. Eta horretarako, tokian tokiko boterearekin bat egitea onena.

Ordutik aurrera, Eliza eta botere politikoa bat eginda joan ziren, Erromatar Inperioaren azken aldian, Erdi Aroko jauntxoen gobernu txikietan, Estatu modernoak sortu zirenean -errege katolikoak eta inkisizioa eredu- eta monarkia absolutuen garaian, non erregearen boterea jainkoaren graziak emandakoa zela teorizatu zuten.

Zorionez, XVIII. mendetik aurrera, Ilustrazioaren ondorioz, Estatua eta erlijioaren bat egite hori bukatutzat eman zen mendebaldeko lurralde hauetan: boterea herriari zegokiola onartu zen, eta erlijio askatasuna aldarrikatu, sinesmena -ala ez sinestea-, gizabanakoaren pentsamendu edo sentimendu barnekoi bezala hartuz.



Orduan, zergatik joan behar du Elgoibarko Udal Korporazioak, salbearen ondoren eta mutil dantzaren aurretik prozesioan, elizatik udaletxera, udaltzaingoa, udal txistulariak, musika banda eta guzti? Eskema zaharkituak, garraztuak, erreproduzitzen direla iruditzen zait, eta nik, kendu egingo nuke. Benetan, NO-DOa gogorarazten dit.

Iñaki Odriozola

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Zergatik joan behar du Udal Korporazioak salbearen ondoren eta mutil dantzaren aurretik prozesioan elizatik udaletxera?”**

IRAILEAN ITZULIKO GARA
SAN BARTOLOME JAIETAKO IRUDIEKIN!
Ondo pasa jaietan!



www.elgoibarren.net

Egin klik eta ikusiko duzu

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# Aurten ere alkoholemia probak egiteko karpa jarriko dute Madalan Gazteen Egunean

**Alkoholaren erabilera arduratsua bultzatzeko asmotan, Sasoiak drogomenpekotasunaren prebentziorako elkarteak azken hiru urteetan bezala karpa jarriko du Madalan, jaien egitarauren baitan. Beste herri mordo batean ere jardun dute Sasoiako langileek udan eta urtean zehar lan honetan, eta jaietan elgoibartarrek izango dute alkohol tasaren frogak egiteko aukera.**



**Ainhoa Mendibil Artetxe**

Badirudi jaiek eta alkoholak eskutik emanda datozen bikotea osatzen dutela oraindik orain eta, hortaz, urtean zehar ere lan ugari izaten duten arren, udaldian nabarmen hazten da Sasoiakoen jarduna, Elgoibarren bezala, jairik jai ibli ohi diraeta, karpara gerturatutakoen alkohol tasa neurtzen. Hala ere, ez da hori euren lan bakarra. Drogomenpekotasuna bere osotasunean lantzen dutela azaldu dio BARRENi Vicente Fernandezek, Sasoiako programa honen arduradunak.

22 urte daramatza dagoeneko Sasoiak esparru horretan lanean, baina orain zazpi urte hasi zen taldea alkoholemia probak egiten. Tarte honetan, makina bat herritako egoera ezagutu ahal izan dute eta esperientziak erakutsi die, gaur egun ere, beraiena bezalako lan askoren beharra dagoela oraindik.

## Alkoholaren kontsumoa, errealitate bat

Fernandezek argi dauka alkoholaren kontsumoa eguneroko zerbait dela gure inguruan; legala den droga bat dela ahaztu gabe. Bere iritziz, ahalik eta gehien atzeratu behar da gazteak alkohola kontsumitzen hasten diren adina. Gaztetxoen lehen mozkorraldia 13 eta 14 urteen artean kokatzen delako esaten du hori. Horrekin batera, 15 eta 16 urte inguruko gazteek alkoholari dioten tolerantzia ere nabarmendu du Fernandezek; hau da, gaztetxoek alkoholdun edari mordoa edan eta hala ere mozkortzen ez direla ikusi baitute urteetako lanaren ostean.

“Garbi dago eta ikerketa zientifikoek ere hala erakutsi digute, egokiena alkoholaren kontsumo eza dela”. Onena horri kasu egitea litzatekeela aipatu du Fernandezek baina arreta berezia jarri du gaztengan. Bere esanetan, aipatu ikerketa zientifikoek erakutsi dute alkoholaren kontsumoa betiere arriskutsua bada, are gehiago eragiten duela garuneko aurrekaldeko lobulua guztiz garatu gabe dagoen bitartean, eta hori ez omen da gertatzen sekula pertsonak 21 urte bete baino lehen. Horregatik argi dauka gazteek bere ustetan alkohol tanta bat ere ez luketela edan behar. Helduei dagokienean, pertsona bakoitzaren egoeraren araberako kontsumoa bultzatu beharko litzatekeela uste du Fernandezek.



**Datuek diotenari begira**

Joan zen urtean 322 pertsonek egin zuten alkoholemia proba Elgoibarko jaietan, eta horietatik 172 pertsonek eman zuten positibo, %53,42k. Proba egin zuten horien artean, gehiengo handi bat gizonezkoak zirela nabarmentzekoa da; hain zuzen ere, %71,43. Era berean, positibo eman zutenen artean ere, gizonezkoak izan ziren gehiago, %69,77, alegia.

## Joan zen urtean alkoholemia proba egin zutenen % 53,42k eman zuen positibo

| Adin tartea | Gizonezkoak | Emakumezkoak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 16 - 17 | 4 (%1.24) | 7 (%2.17) | 11 (%3.42) |
| 18 - 20 | 100 (%31.06) | 37 (%11.49) | 137 (%42.55) |
| 21 - 25 | 62 (%19.25) | 23 (%7.14) | 85 (%26.40) |
| 26 - 30 | 34 (%10.56) | 12 (%3.73) | 46 (%14.29) |
| 31 - 35 | 18 (%5.59) | 8 (%2.48) | 26 (%8.07) |
| 36 - 40 | 4 (%1.24) | 0 (%0) | 4 (%1.24) |
| 41 - 45 | 3 (%0.93) | 1 (%0.31) | 4 (%1.24) |
| 46 - 50 | 2 (%0.62) | 3 (%0.93) | 5 (%1.55) |
| 51 - 55 | 1 (%0.31) | 1 (%0.31) | 2 (%0.62) |
| 56 - 60 | 1 (%0.31) | 0 (%0) | 1 (%0.31) |
| 61 - 65 | 1 (%0.31) | 0 (%0) | 1 (%0.31) |
| Guztira | 230 (%71.43) | 92 (%28.57) | 322 (%100) |




Iazko sanbartolomeetan Elgoibarren egindako alkoholemia probako datuak.

---





SARIKI
METROLOGÍA
Ondo pasa jaiak!
SARIKAL
LABORATORIO
ENAC
NEURKETA DIMENSIONALENTZAKO EKIPO HORNITZAILEA
KONTSULTORIA, PROIEKTU PERTSONALIZATUAK, FORMAKUNTZA
www.sariki.es www.sarikal.es
KALIBRAZIO LABORATEGIA ETA NEURKETA ZERBITZUAK


ITURRI
TABERNA
PINTXO HOTZAK ETA BEROAK
RABAK.
RAZIOAK.
OGITARTEKOAK
Ondo pasa jaiak!
Foruen plaza, 5
Tel.: 943 257 448


PNEUMAX
PNEUMAX, S.A.
AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGAIAK
Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 76
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es
aiftop
ECOPLUS


jai
zoriontsuak!
elgoibar ikastola
Herri Onurako izendatua
www.elgoibarikastola.eu
Tel.: 943 744 441


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA
TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54


EIZAGUIRRE
OKINDEGIA
LANTEGI PROPIOA
Espezialistak artisau ogietan, txapata ogietan, opiletan...
Zure osasuna zaintzen duen ogia: diabetesa, hipertentsioa, idorreria, kolesterola, anemia, digestio laguntzailea...
Ogia beroa izango dugu goiz eta arratsaldez!
Ondo pasa jaiak!
San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Argitaratzailea:**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

**Laguntzaileak:**



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

### Jaietan ere, ezin ahaztu

Ametsak egi bilakatzen direla ospatuko dugu beste behin jaietan. Lanean emandako orduek emango dute beraiena, eta ikusiko dugu nola uda guztian zehar herriko gazteon iniziatibaz prestatutako ekintzek, izango duten merezitako arrakasta jaietan.

Horregatik, beraz, jai-giroan ondo pasatzen hasi orduko, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiegu gaur arte, datozen egunak prestatzen lanean jardun duten gazte guztiei. Poliki-poliki, gure herriari gazteon indarrez ametsak egi bilakatu daitezkeela erakusten dihardugu, eta bide onean goaz; aurrera.

Gozatu, hortaz, datozen egunetan, eta gogoratu, denok ondo pasatu dezagun, batzuek lanean ordu ugari eman ditugula dagoeneko, eta beste txanda, montaje, prestaketa, sukalde eta garbiketa lan ugari geratzen zaizkigula oraindik.

Bukatzeko, Ainararentzat, espainiar poliziak bahituta daukan gure asanbladakidearentzat dira gure azken berbak: orain arte bezala, herriko jaietan ere gurekin egongo zara Aina; zure omenez doaz jaietako patxarana eta Gaztetxeko afterretako dantzak!

Ondo pasatu jaiak, eta astindu gorputzak!

**Elgoibarko Gazte Asanblada**

**OHARRA**

Hurrengo alea irailaren 2an jasoko duzue, sanbartolomeetako erretratuekin. Ondo pasa San Bartolome jaiak!

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak…
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.




Arkaitz Irureta

Oporretatik bueltan ekonomiari ekitia pentsatu juat. Keynes ekonomilari ingeles bat izan zuan, Wall Streeteko 1929ko krisiaren ondoren ezaguna izaten hasi zuan krisitik ateratzeko errezetengatik. Makroekonomia teorien sortzailetzat ere hartua izan dok. Krisi ziklikuetatik urtetzeko bere ideietako bat diru publikuakin lan publikuak bultzatzia zuan.

Ordurako, Eibarren Arrateko bidia egiten hasiak zittuan; Untzaga plazara joan, langabetuak hartu, pikatxoia eta palia eman, eta lanera!

Ordutik hona, lan publikuen merkatua asko espezializatu dok, hainbeste, gaur egun bost enpresa daudela ia danen atzian, eta politikari ezagun batzuk ere tartian. Ustel usaina jaukak!

## "Krisia batzuk ez debela ordaintzen pentsatzen juat, Justo"

Hori gutxi balitz, sindikatuak bost enpresa hauen atzetik dabixaz. Hitzarmen kolektiboak ez betetzeagatik, prebentzio neurriak ere ez, peoiek sarri hamabi-hamahiru ordura arteko jornalak egiten ei jaittue. Kontratatutako langileak atzerritarrak dittuk gehienetan, portugaldarrak, errumaniarrak eta Europaz kanpokoak ere gero eta gehiago ei dittuk.

Non geratu dittuk Keynesen errezetak? Diru publikoaz aberastasuna banatu ordez, esklabutzak maizterren aberastasuna handiagotzen jok, are gehiago, krisi finantzieroa eraikuntzatik etorri danian!

Administrazioa eredu izan biharko litzake kontratatzeko orduan, eta bere subkontratetan lan baldintza duinak ematen dirala egiaztatu. Krisia batzuk ez debela ordaintzen pentsatzen juat, Justo.


Justo Arriola

Makroekonomia? Gogor hator, Arkaitz. Ba badakik Keynesen "semia" dan Munduko Diru Funtsaren errezetak ezarri jaittuenetik txakurrak eta katuak desagertzen ari ei dirala Greziako kaleetatik? Pizti batek jaten jaittuk. Bere izena ez dok Godzilla, gosia baizik.

ELAren arabera, Construcciones Galdianok Urruzunoko etxebizitzen lanetan jiharduen esklabu pakistandarrei bi euro orduko ordaintzen jauezek, eta segurtasun neurririk gabe dabixaz. Enpresa honen gerentia Gipuzkoako eraikuntzako ugazaben nagusixa dok, eta ez jok sindikaturik nahi bere haziendan. Eta Udal arduradunak inaugurazioko zinttia mozteko guraizei begira, hi. Aldamixotik erortzen diran langilliak gerra isil baten biktimak dittuk.

Eta IBEX-35eko bandiduei begiratu biharrian, batzuek etsaitzat hartzen jaittue etorkiñak, laguntza soziala jasotzeagatik.

## "IBEX-35eko bandiduei begiratu biharrian, batzuek etsaitzat hartzen jaittue etorkiñak"

Idatzi hau jaixetako alian urtengo danez, Guatemalan tiroz hildako abeslari argentinar baten berbekin amaitzia nahi juat, poetak gobernatutako mundu baten esperantzia jaukan Facundo Cabralenekin, haiñ zuzen: "Ez hago deprimittuta, distraittuta hago. Habitatzen hauan bizitzaz adigabe. Inguratzen hauten bizitzaz adigabe, izurdiak, basuak, itsasuak, mendixak, errekak... Ongia gehiengua dok, baiña ez dok nabaritzen isilla dalako. Bonba batek laztan batek baiño zarata haundixagua egitten jok, baiña suntsitzen daban bonba bakoitzeko bizitza elikatzen daben milloika laztan dauaz".







**Gaur hasi eta domekan amaituko dira San Bartolome jaiak.**

# Zer kendu edo gehituko zenuke jaietako egitarauan?



**Asier Gurrutxaga**
**42 urte, elektrikaria**

Ez daukat argi, baina kendu ez nuke ezer egingo, bestela ere ez delako gauza handirik egoten. Gauza berriak jartzen ahaleginduko nintzateke, esate baterako, kaleko giroa. Hasi dira hori indartzen, baina oraindik badago zeregina. Egitaraua urte batetik bestera berdina izaten da.



**Mari Kruz Intxausti**
**60 urte, irakaslea**

Azkenaldian ez naiz egoten jaietan, baina lehen gustatzen zitzaidan egitaraua. Gazteek lehen protesta gehiago egiten zuten, kontzertuak ez zirelako onak izaten, baina azkenaldian denen gustuko egitaraua dagoela esango nuke. Denetik dago, eta adin guztietakoak hartzen dira kontuan.



**Eneko Gomez**
**16 urte, ikaslea**

Jaietako egitaraua ondo dago. Gazteentzako ekintza asko daude, eta guk oso ondo pasatzen dugu. Txiki Eguna gustatzen zaigu gehien, eta Gazteen Eguna ere ondo egoten da. Erreka jaitsiera oso polita izan zen. Guk ez dugu parte hartzen, baina ikustera joaten gara.



**Unai Arrese**
**13 urte, ikaslea**

Dagoena ondo dago. Txiki Eguna eta Umeen Eguna gustatzen zaizkit, bereziki. Goitibeherak ikustera ere joaten gara, baina oraindik ezin dugu parte hartu. Ondo egongo litzateke txikiagoek parte hartzeko ekintzaren bat jartzea, adibidez futbol torneo bat.






**Jai koloretsuak eta euskaldunak izan ditzazuela!**

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA
www.elgoibarkoizarra.com

# Kultur eskaintza handia

**Antzerkia, dantza eta musika izango dituzte herritarrek aukeran aurten. Antzerkiak aspaldiko urteetan baino leku gehiago izango du jaietan, eta kalean gainera; baina antzezlanez gain, musikaz gozatzeko aukera ere ez da falta-ko. Jai giroan baina, izaten da dantzan egiteko inoiz baino arrazoi edo gogo gehiago, eta horretarako, dantzan dihardutenak ikusteko, eta dantzan ikasteko aukera ere izango du nahi duenak.**

### Kukai, 'Karrikan' dantza ikuskizuna

**Abuztuaren 23an, 23:00etan, Plaza Handian**

Dantza tradizionaletik abiatuta, ikuskizun garaikideak sortzen ditu Kukai dantza konpainiak, eta *Karrikan* sei dantzari eta Dj bat biltzen dituen kale ikuskizuna da. Kukai hiru koreograforekin elkarlanean jardun da proiektu honetarako, eta hiruren lanak bilduz *Karrikan* proiektua osatu du.




### Debako Elektrotxaranga

**Abuztuaren 23an, iluntzean, Gune Askean**

Bigarren urtez animatuko dituzte debarrek Elgoibarko kaleak. 2009an taldea sortu zutenetik, makina bat herri bisitatu dituzte gazte hauek euren musika tarteko. Dantzan egiteko modu polita ekarriko dute; ez dira eta eszenatoki bakar batean geldi geratzekoak.



### Trapu zaharra, 'Jira&bira'

**Abuztuaren 24an, 19:00etan, Nafarroa Plazan**

Gasteizko Trapu Zaharra antzerki konpainiak langabeziari aurre egiteko gomendioz osatutako hitzaldiak ematen dituen langabetu baten istorioa eskainiko digu, konpainiaren indargune den kaleko antzerkiaren berezitasunarekin.



### Markeliñe, 'Carbón club'

**Abuztuaren 24an, 23:00etan, Plaza Handian**

Gaueko kale ikuskizuna da "Carbón Club"; soinuz, argiz eta pasioz betea. Meategien sakonera eramango gaitu Markeliñe antzerki taldearen lan honek, eta kabaretaren erritmoan gainera. Lanean ahalegina egiten duten gizon-emakumeei omenaldia egitearekin batera, bizitzaren metafora azaldu nahi dute antzezleek.




### Oria txaranga

**Abuztuaren 25ean, 19:00etan, kalejira**

30 urteko esperientzia duen txaranga da Oria aldekoa. Gipuzkoako jaiak animatzeko asmotan sortu zen taldea eta urte guzti hauetan inguruko eta kanpoko herri gehienetako jaiak ezagutu dituzte dagoeneko.

PREZISIO MUNDU BAT
MYL
myl precision spindles
& spindle repairs service
MYL S.A.
Ondo pasa jaietan!
Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es

## LAKET

**Abuztuaren 25ean, 20:00etan, Gune Askean**

Duela hiru urte sortu zuen taldea boskote honek, baina horrek ez du esan nahi berriak direnik honetan. Denak ere aurrez beste talde batzuetan ibiliak baitira; tartean Etzakit, Mal de Ojo edo Esne Beltza bezalako taldeetan jardundakoak dira. Eurak izango dira aurtengoan Txiki Eguneko erromerian herritarrak dantzan jarriko dituztenak.




## EGAN

**Abuztuaren 25ean, 22:30ean, Plaza Handian**

Xabier Saldias kantari azpeitiarra da Egan taldearen ahotsa. Ohiko erromeria giroari kutsu berezia eskainiko diote. Euren abestiekin batera, talde ezagunen euskarazko bertsioak egiten dituzte. Dantzariak ere badituzte taula gainean, eta Txiki Egunean dantzan jarriko dute Plaza Handia.






## DISKO FESTA

**Abuztuaren 26an, 23:00etan, Plaza Handian**

Oihan Vega telebistako aurkezle eta irratiko esatari izateaz gain, DJa ere bada, eta bere diskofestaren doinuek beteko dute herriko plaza Gazteen Egunean. Euskal Herriko makina bat herritan ibilia da plazak dantzan jartzen, eta Elgoibarrera ere asmo berdinean dator.



## DJ GAUA

**Abuztuaren 27an, 22:00etan, Madalako parkean**

Kida Events taldearen eskutik, DJ gaua izango da zapatuan, Madalako parkean. Musika elektronikoa, biolin, saxofoi, txalaparta eta bertsolariekin nahastuta entzuteko aukera izango da.

## ARRABOTS

**Abuztuaren 27an, 23:00etan, Plaza Handian**

Dantzaldi gidatuak egiteko helburuarekin sortu zuten taldea lau musikari eta dantza irakasle batek. Biolinaren gidaritzapean sortzen dituzte doinuak eta gerturatutakoek Jokin Otamendi dantza maisua izango dute dantzarako gidari.



## HORTZMUGA, 'LIBERTIA'

**Abuztuaren 28an, 20:00etan, Nafarroa Plazan**

Txotxongiloak, panpin handiak, antzerkia eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna da *Libertia* eta askatasunari eta haurren autonomiari buruz dihardute Hortzmugakoek beraien lanean.



PAULANER TXARRIDUNA

Jaietarako mahaiak erreserbatzen ditugu!
Menu bereziak!

Ermuaranbide 1, - Elgoibar - Tel.: 943 740 490





# HIZKUNTZ SOLUZIOAK

www.ils.es

**IRAILETIK HASITA 2011-2012KURTSOKO IKASTAROAK**

- Maila guztiak.
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Talde murriztuak, enpresako klaseak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

ils@ils.es
Azkue auzoa (IMH)
Tel.: 943 744 040
Upaiz Zaharra, 12 behea
20870 ELGOIBAR

**ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUAK**

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
  - Teknikoa (makina-erreminta).
  - Komertziala.
  - Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.
- Prezio lehiakorrak.

**Ondo pasa jaiak!!**

ILS

Industry Language Services

inglés
francés
alemán
italiano
chino

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES





KU KOLOREA

660 52 25 87
943 74 88 43

*ONDO PASA JAIAK!!*

- BARNE DISEINUA
- PINTURA TEKNIKA DESBERDINAK
- IZTUKUAK
- FATXADAK ZAHARBERRITZEA
- OHOLTZA FLOTAGARRIA

*Urasandi 26, behea*
*20870 ELGOIBAR*
*Tel.: 660 522 587 - 943 748 843*

ONGI iturgintza

BAINUGELAK
GASA
KLIMATIZAZIOA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Applus® ISO 9001

Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 254 522 - Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com - www.ongielgoibar.com








IBA RRE NEA
okindegia
1890tik
Ondo pasa Sanbartolomeak!!
ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK
Helbide berria!
San Bartolome 26
Tel.: 680 724 060


Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27
EHORZKETA
ETXEBERRIA, S.L.
BEILATOKIA
Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es


API
Burtsa informatikoa
GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
Jai zoriontsuak denoi
San Frantzisko 51, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 744 467




**A**itziber Dominguezek irabazi du sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa, eta 700 euroko saria eskuratu du. Parte-hartzea iazkoa baino handiagoa izan da; denera 21 kartel aurkeztu dituzte-eta aurten. Umeen lehiaketan, sei lagunek parte hartu dute, eta denak saritu ditu epaimahaiak: Lide Baz Salegi, Nora Isasti Huidobro, Mikel Vallejo Caballero, Ane Almenara Alberdi, Maria Ruiz de Gauna Gonzalez eta Aritz Vallejo Caballero.

ESTUDIOS ARRILLAGA
PROIEKTUAK ERREFORMAK
LOKALAK ETXEBIZITZAK
Arragueta, 12 EIBAR
Tel. 943 20 08 98
ELGOIBAR Errosario, 15
Tel. 943 74 40 19

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Ondo pasa jaiak!
ARBELOA INMOBILIARIA
arbeloainmobiliaria@euskalnet.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

DEBAPE inprimategia
komunikazio grafikoa
ONDO PASA JAIAK!
Liburuxka, publizitate, papergintza komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen, etab..-en diseinu eta inprimaketa.
Inprimaketa digitala
SIGMA Industrialdea • Xixilion 2 - 2. solairua, 7. lokala
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
debape@debape.com • www.debape.com



# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *martitzena*



**9:00 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Elite mailako amateurrentzat (19-23 urte). Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Irteera: Plaza Handian.
Helmuga: Santa Klaran, 12:00etan.

**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**
Udaletxean Ikurriña jasoko dute jaiak hasteko Miren Vallejok eta Inazio Etxeberriak, Plaza Handian.

**Ondoren,** Mauxitxa txarangaren kalejira.



# Egitaraua

**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian. (Euria egiten badu, Sigman).

**16:30 SORPRESA**
Zaharren biltokian.

**17:00-18:30 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Elgoibarko, Iruñako eta Biasteriko dultzaineroekin batera.



**18:00 FUTBOL PARTIDA MINTXETAN**
CD Elgoibar-Anaitasuna. Antolatzailea: CD Elgoibar.

**19:00 KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin.

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA**
Udal Txistulari Taldeak lagunduta, Udalbatza San Bartolome parrokiara joango da, alkate soinua joaz.

**23:00 DANTZA IKUSKIZUNA**
*Karrikan* dantza ikuskizuna, Kukai dantza konpainiaren eskutik.

Lanbroa


Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.
Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 - 3.solos 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

albe, S.L.
➤ LAUKETAK
➤ MORTASAKETAK
➤ BROTXAKETAK
JAI ZORIONTSUAK!!
Sigma Industrialdea
Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286
ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

# OSASUN GIDA

**MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK**
*Kemen Belardenda.*
*Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*
(Pisu kontrola ,"Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta.
San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

*Sanatana Dharma*
*Yoga Elkartea*
Anginei aurre egiteko masajea.
Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
*Mendaro:*
Astelehen eta asteazkenetan:
15:00-16:30

**MASAJISTAK**
*Victoria Iraegi*
(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).
San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

**PODOLOGOAK**
*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

*Iñigo Arrillaga Yudego*
- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko, 20 behea Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30 /15:30-19:30

**Ondo pasa jaiak!**

**FISIOTERAPIA**
*Ainhoa Fisioterapia*
Jausoro, 6 behea.
Fisioterapia eta osteopatia.
Tel.: 943 531 953
669 565 745
*C.R.F. erreabilitazio zentroa*
(Partikularrei eta seguruen bidezko tratramenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.
San Inazio, 2
Tel.: 943 743 374
Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

**OPTIKAK**
*Ikus optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

**HORTZ KLINIKAK**
*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
*irale@irale.com*
*www.irale.com*

*Leku eder*
Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza,
5 behea.
Tel: 943 530 053
*lekueder@infomed.es*

*Beitia Arriola*
- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

**ORTOPEDIAK**
*Itziar Sarasketa*
San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero:
9:30-13:00 /17:00-20:00



# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, *eguaztena*

**9:00 ELGOIBARKO DULTZAINEROEN DIANA**

**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**



**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte.

**Jarraian, SOKADANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin, Plaza Handian.



**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian.

**16:00-20:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian (euria egiten badu Sigman).

**17:30-19:00 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Elgoibarko, Iruñeko eta Biasteriko dultzaineroekin batera.



**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako frontoian.

**19:00 KALE IKUSKIZUNA**
*Jira&Bira* ikuskizuna Trapu Zaharraren eskutik, Nafarroa Plazan.

**23:00 KALE IKUSKIZUNA**
*Carbon Club* Markeliñeren eskutik, Plaza Handian.

Jasone
Zerbitzu Grafikoak
Ondo pasa jaiak!
- Lan komertzialak.
- Kartelgintza era guztietako tamaina eta euskarrietan.
- Ezkontza gonbidapenak
- Gabon zorion-gutunak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala
San Bartolome,15 - behea • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com • www.jasonesg. com

BIAK
ileapaindegia
San Inazio, 4
Tel.: 943 742 725
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Upaiz Zaharra, 6
Elgoibar
On informatika
on@oninformatika.com
tel.:943 741 846
Ondo pasa jaietan!
Salmenta · Konponketa · Zerbitzu Teknikoa · Aholkularitza · Web Diseinua · Sareak
Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!
www.oninformatika.com

ARAMBURU
BITXIDENDA
Ondo pasa jaiak!
San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

ASESORIA GOAR
- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak
San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoriagoar@euskaltel.net

Txintxo
INMOBILIARIA
San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 742 674






# Txiki Eguna

## ABUZTUAK 25, *eguena*

**7:30 DIANA**
Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA,** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA**
Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK**
Plaza Txikian.

**12:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

**17:00 TXIKI EGUNEKO HERRI-BAZKARIA**
Sigman. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra kultur elkartea.



**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako Frontoian.

**18:30 ZEZEN ETA BETIZU BOLAZTATUEN V ERAKUSTALDIA**
Plaza Txikian.

**19:00 KALEJIRA**
Oria txarangarekin.

**22:30 DANTZALDIA**
Egan taldearekin, Plaza Handian.

# Gazteen Eguna

## ABUZTUAK 26, *barixakua*

**8:00 DIANA**
Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA**
Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 GOITIBEHERAK**
Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea. Izena ematea irteeran bertan. 14 urtetik 18ra artekoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.



**Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.**

**17:00-20:00 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN ENBOLATUEKIN**
Plaza Txikian. Antolatzailea Zuhaitz aisialdi Taldea.

**23:00 DISKO FESTA**
Oihan Vega DJarekin, Plazan Handian.

**24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA**
Alkohol tasaren frogak egiteko karpa, Madalan.



Ondo pasa San Bartolome jaietan!

IMH
Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

www.imh.es - imh@imh.es - Tel.: 943 744 132 - Elgoibar

ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA




TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.

katalogoa

- Doakoa da.
- Bankuz aldatu gabe.
- Bildu puntuak erregaluekin trukatzeko.
- Deskontuak urteko hilabete jakin batzuetan.

| Izen komertziala | Telefonoak |
|---|---|
| •AGIRRE SASTRERIA | 943 740 341 |
| •ALIRE ESTETIKA | 943 531 636 |
| •ARANBURU BITXIDENDA | 943 742 535 |
| •ARAURI LURRINDEGIA | 943 741 789 |
| •AZKUE ARGAZKI DENDA | 943 740 848 |
| •CASA ASTIGARRAGA | 943 743 268 |
| •DORI URDAITEGIA | 943 741 192 |
| •ECENARRO MERZERIA | 943 742 619 |
| •FARMA APRAIZ | 943 743 606 |
| •FERPI MODAK | 943 740 815 |
| •G & M JANTZIDENDA | 943 033 478 |
| •GARATE JANTZI-DENDA | 943 741 129 |
| •GARBIÑE ESTETIKA | 943 743 132 |
| •GOIARA DROGERIA | 943 741 133 |
| •IBAMAR ITURGINTZA | 647463436 |
| •IKUS OPTIKA | 943 743 734 |
| •IPINTZA MARGOAK S.L. | 943 740 440 |
| •IRIONDO ALTZARIAK | 943 741 234 |
| •IRIONDO KIROLAK | 943 740 958 |
| •KALA LORADENDA | 943 744 516 |
| •KARKIZANO | 943 740 549 |
| •LANBROA | 943 740 866 |
| •LANDA HARATEGIA | 943 742 758 |
| •LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 943 740 054 |
| •LETE | 943 744 199 |
| •LUVIK OINETAKOAK | 943 744 345 |
| •MG BURDINDEGIA | 943 740 831 |
| •MURUAMENDIARAZ | 943 740 345 |
| •OINEZ UMEEN ZAPATA DENDA | 943 031 101 |
| •ONGI ITURGINTZA | 943 254 522 |
| •ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA | 943 743 562 |
| •OSORO OINETAKOAK | 943 740 235 |
| •PATXI HARATEGIA | 943 743 504 |
| •PITXINTXU | 943 743 206 |
| •SARA JANTZIDENDA | 943 743 555 |
| •SKANDALO KORTSE-DENDA LENTZERIA | 943 743 595 |
| •SOFTLAN | 943 748 105 |
| •SUNOFIC | 943 744 102 |
| •UZURI OPTIKA | 943 740 359 |
| •ZAZPI INFORMATIKA | 943 743 787 |
| •ZELETA BARAZKIAK | 943 743 022 |
| •ZIUR | 943 531 205 |

*Diru laguntzailea:*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA






# Baserritarren eguna

## ABUZTUAK 27, *zapatua*

**9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGIETORRIA**
Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Bandak harrera egingo diete Nafarroa Plazan.

**Jarraian, BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**10:00 GIPUZKOAKO LIMUSIN GANADUAREN TXAPELKETA** Plaza Txikian.



**11:00 SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Plaza Handian, Sallobente elkarteak antolatuta.

**11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA**
Nafarroa Plazan, Kalamua elkarteak antolatuta.

**12:00 KALEJIRA**
Elgoibarko kale kantariek alaituko dituzte kaleak Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

**13:30 GAZTA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Nafarroa Plazan.



# Egitaraua

**14:00 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**Jarraian, GANADU LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA**
Sigma jatetxean, trikitilariek eta bertsolariek girotuta.

**17:00 BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**



**18:00 KALEJIRA**
Elgoibarko kale kantariek alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

**18:00 SAN BARTOLOMEETAKO HARRIJASOTZE TXAPELKETA**
Plaza Handian. (Euria egiten badu, Ikastolan).
Antolatzailea: Kalamua elkartea.



**22:00 DJ GAUA**
Kida Events-en eskutik, Madalako parkean.

**23:00 DANTZALDIA**
Arrabots taldearen dantzaldia Plaza Handian.













USATORRE Taberna
Jai zoriontsuak igaro!

AGURTZANE c.b. ileapaindegia
ONDO PASA JAIAK!
Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

NORFO S.L.
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA, ELKARTZEA ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
PM Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

AZALEA Edergintza
Mª Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310
TRATAMENDU BERRIAK!!
Konpromisorik gabeko informazioa
GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa

SKANDALO
LENTZERIA
BARRUKO ARROPA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
Ondo pasa jaiak!
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

ETXEPE Lan bereziak
T: 943 741 297 / 943 740 664
F: 943 744 321
www.etxepe.com
etxepe@etxepe.com

# Jubilatuen eguna

## ABUZTUAK 28, domeka

**8:00 IDIARENA**
Elgoibarko dultzaineroekin.

**Jarraian, SOKAMUTURRA,** Arnoren zezenekin.



**12:00 HEGALUZE PARRILLADA**
Eusko Labeldun hegaluzea, parrillan. Nafarroa Plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Danborrada Atabal elkartea.

**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:30 JUBILATUEN BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian, Eguren orkestrak girotuta.



**19:00 DANTZA SOLTEKO 75. LEHIAKETA**
Plaza Handian.

# Umeen eguna

## ABUZTUAK 28, *domeka*

**11:45 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
King-Kongetik Plaza Txikiraino.




**Jarraian, ZEZENTXOAK ETA PONIAK** txikienentzat,
Plaza txikian.

**11:30 - 13:45 AIRE LIBREKO MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

**14:00 HAURRENTZAKO HERRI BAZKARIA**
Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

**14:30 HEZKIDETZAREKIN JOLASEAN ETA HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Txikian. (Euria egiten badu, Sigman).

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**Jarraian, ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin batera.

**20:00 HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA**
*Libertia* Hortzmuga taldearen eskutik, Nafarroa Plazan.

Tel.: 943 741 011
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

estetikaalire
* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
* Ongizate tratamenduak
* Masajeak
* Fotodepilazioa
* Mikropigmentazioa
* Manikura
* Solariuma
* ...
Upoiz zubiaren,1 behea
Tel.: 943 531 636
Elgoibar
Ondo pasa jaiak!

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK
Jai zoriontsuak!
Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.
Iñaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351
Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ZAZPI
INFORMATIKA
Bernardo Etxenaro, 15 behea
Tel. / Faxa: 943 74 37 87
E-maila: zazpi@telefonica.net
20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)
ONDO PASA JAIAK!

karkizano
Ondo pasa Sanbartolomeak!
San Francisko, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar


75 urte
gozogintzan
Elgoibar:
San Bartolome kalea, 35
Tel.: 943 740 345
Ermua:
Diputazio kalea z/g
Tel.: 943 176 803
Muruamendiaraz
GOZODENDA
Ondo pasa jaiak!!!


Arregitorre, 2
Tel.: 943 748 019 (Meka)
943 748 397 (EABHI)
www.elgoibarbhi.net
ELGOIBAR ARREITURRE BHI
eta MEKA GLHBI
HERRI ESKOLA
Kalamua, 18
Tel.: 943 740 879
Jai zoriontsuak
opa dizkizuete!



# ASTO-KAKA

## Urriak 14 eta 15

### Plaza Txikia - Leku Eder




Erosi Asto-kaka txartelak, agortu baino lehen.
BARRENi laguntzeaz gain, 2.000 euroko saria jaso dezakezu.

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

# Dantza solteak 75 urte

**Elgoibarko Dantza Solteko Txapelketak 75 urte egingo ditu aurten. Hori dela eta, Udalak omenaldi txiki bat egingo die urte horietan guztietan txapelketa antolatzen jardun dutenei, eta horretarako, jaiei hasiera emateko ohorea eskaini die Miren Vallejori eta Inazio Etxeberriari. Dantza Solteko txapelketako lehen edizioan hartu zuten parte, eta eurek botako dute aurtengo txupinazoa udaletxeko balkoitik. Abuztuaren 23an izango da, 13:00etan.**

**Ainhoa Andonegi**



*Inazio Etxeberriak eta Miren Vallejok botako dute aurten txupinazoa.*

*1941eko dantza solteko txapelketako argazkia. Ezkerretik eskumara: Pako Juaristi, Miren Vallejo, Maritxu Sodupe eta Jose Odria.*



Orain dela 75 urte antolatu zuten estreinakoz dantza solteko txapelketa Elgoibarren. Garai hartan ere baziren herrian dantza zaleak, eta estreinako txapelketa hartan parte hartu zuten bi elgoibartarrekin egin du berba BARRENEK; Miren Vallejorekin eta Inazio Etxeberriarekin, hain zuzen ere.

Urduri samar daude biak jaiei hasiera emateko ardura eman baitie Udalak, baina aldi berean pozik daudela nabari zaie. “Ez daukagu horrenbesterako meriturik! Dantza besterik ez genuen egin”, esan dute.

Miren Vallejok 88 urte ditu, eta Inazio Etxeberriak 83, eta dantzan egiteari aspaldi laga ziotela adierazi dute: “Hankak ezin ditut altxatu”, esan du Mirenek, baina etxean bakarrik dagoenean dantza pixkat egiten dutela aitortu du: “Tangoa ere dantzatzen dut batzuetan”, dio irribarretsu. Inazio Etxeberriak ezkontza batean egin zuen dantza azkenekoz, eta urduri jarri zela gogoratu du. Hala ere, dantza bihotzean daramate, eta dantza txapelketak eta emanaldiak ikusten izugarri gozatzen dutela diote. Gaur egungo gazteek hankak nola mugitzen dituzten ikustea gustatzen zaie, bereziki.

Umetan hasi ziren dantzan biak dantzan, 11 edo 12 urte zituztela. Gelatxo baserrira joaten ziren dantzan ikas-

tera: “Gelatxok soinua jo, eta guk dantzan egiten genuen”, gogoratu dute. Trikitixa egiten zuten bereziki. Gelatxok prestatzen zituen dantza txapelketetarako bikoteak, eta halaxe hasi ziren Elgoibarren eta inguruko herrietako txapelketetan parte hartzen. Hiru bikote ibiltzen ziren dantzan, eta Inaziok esan duenaren arabera, Miren Vallejo eta Pako Juaristi ziren onenak. Hala ere, ondo akorduan dauka Inaziok Mirenekin Elgoibarren dantza egin zuenekoa: “Txapelketa amaituta zegoen ordurako, baina eszenatoki gainera igo ginen, eta ikusleek 36 pezeta bota zizkiguten kioskora. Erdibana banatu genuen, bakoitzarentzat 18na pezeta. Sekulakoa izan zen”.

Dantzarako erraztasun handirik ez zegoela azaldu dute, izan ere, garai hartan taldetan biltzea ere debekatuta zegoen. Gehienez lau lagun elkartu ahal izaten ziren, eta herriko Karlistek dantza sustatu zutela gogoratzen dute. Hala ere, txapelketa honek hainbeste urte iraungo zuenik ez zuten espero.

Trebeak ziren dantza soltean, eta Inaziori aurreskua dantzatzen ikasi behar zuela esan zioten. Romualdo Andonegi, Arturo Zubiaurre eta Azpiazurekin ikasi zuen aurreskua dantzatzen, elizako ganbaran. Erdi ezkutuan jarduten zuten dantzan, baina gogotsu. Patxikok eta Silvinok txistua joten zuten, eta soinuarekin ohituta, zaila egin zitzaion Inaziori aurreskua ikastea, baina gero baserri auzoetako festetan dantzatzen zuen, eta gustura ibiltzen zela azaldu du.

Hala ere, hemen dantza soltea zen nagusi, eta *agarrauan* dantza gutxi egiten zen. Azkoitian helduta dantza egitea debekatuta zegoela azaldu dute, eta istorio polita ekarri du gogora Inaziok: “Azkarate gainean zegoen muga. Bi taberna zeuden, bat Azkoiti aldera eta bestea Elgoibar aldera, eta batean debekatuta zegoen helduta dantza egitea eta bestean ez”.



*Pako Juaristi eta Miren Vallejo soltean dantzan.*



Soldaduskara joateko ordua iritsi zitzaionean utzi zion dantza egiteari, baina gero gazteei erakusten ere ibili zen Pilar Ikastetxean.

Hasierako urteetan *Concurso de bailes regionales vascos* zeukan izena txapelketak, eta 1955ean hartu zuen gaur egun daukan izena. 1986tik aurrera Haritz dantza taldeak antolatzen du txapelketa. urte bikoitietan 15 urtetik beherakoentzat izaten da, eta bakoitietan 15 urtetik gorakoentzat.

Aurten, beraz, 15 urtetik gorako dantzariak etorriko dira txapelketara, eta seguru, Inazio eta Miren ere Plaza Handian egongo direla dantzaldiaz gozatzen.

*Miren Vallejo eta bere senarra Pako Juaristi Oñatiko dantza txapelketan.*

## Erretratu zaharra



**1973**

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek lagatakoa da. 1973. urte ingurukoa da, eta San Bartolome jaietan aterata dago. Ikusten den bezala, orduan ere koadrilako alkondarak jantzita irteten ziren gazteak kalera, dotore-dotore. Pozik eta umore onean ageri da neska koadrila hori, jaiak ospatzeko gogoz. Gogora ditzagun neska gazte horien izenak. **Goian, ezkerretik eskumara:** Maite Arrieta, ezezaguna, Maria Pilar 'Olazabal', Karmele Andonegi, Lurdes Illarramendi, Marisa Andonegi eta ezezaguna. **Behean, ezkerretik eskumara:** Arantza Alonso, Merce Mendikute, Rosa Isabel Iruretagoiena, Nieves Cid, Lore Badiola eta Mila Sanchez.

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES,S.L.



Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net

# LAGUNAK
# KOLTXOI DENDA- TEXTIL HOGAR

## 15 urteko bermea zure koltxoi berrian!

Erraztasun osoz,
agiririk egin gabe!

%10etik %25era
arteko beherapenak:
koltxoi, somier,
ohe elektriko,
ohe azpiko kutxa
eta abarretan.



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - *www.textillagunak.com*

TEMPUR · OLDSAN · terxy · Oihana Ohe geriatrikoak · KEYTON Masajedun besaulkiak · MASH

# ADARREN AURREAN

**_Dira, dira, beltz beltzak dira, harrapatzen bazaitu…_ Batzuk zezenak harrapatzeko beldurrez ibiltzen dira sokamuturrean, urrunetik begira, eta beste batzuek adarren aurrean gozatzen dute. Bakoitzak bere erara, baina herritar askori gustatzen zaie sokamuturra. Gaurkoan lau lagun ekarri ditugu orriotara, zezenaren hatsa bizkarrean sentitzea gustatzen zaien gizonezkoak, alegia. Emakumeek, oro har, beste modu batean bizi dute sokamuturra, eta adarren aurrean gutxi ibiltzen diren arren, asko dira portaletan batzen direnak. BARREN saiatu da horietakoren baten testigantza jasotzen, baina ezezko erantzunak jaso ditu. Baina, argi gera dadila sokamuturra ez dela gizonen kontua soilik.**

**Ainhoa Andonegi**



## IÑAKI KONDE — "Sokamuturra eta txaranga oso partehartzaileak dira"



*Zezenak Iñaki Konde harrapatu zueneko irudia.*
*Arg.: Edu Arrillaga*

**1. Noiz hasi zinen sokamuturrean ibiltzen?**

Aita ibiltzen zen ni umea nintzela, eta berak animatuta hasi nintzen sokamuturrera joaten. Baina hala ere, edozein elgoibartarrentzat sokamuturra eta txaranga oso ekintza partehartzaileak dira. Kontzertu batera edo pilota partida batera joan zaitezke, baina ez duzu parte hartzen, eta txarangan edo sokamuturrean, bai. Bi ekintza horiek ematen diote indarra Txiki Egunari. Ni Txiki Egunean hasi nintzen sokamuturrera irteten, eta poliki-poliki engantxatu egin ninduen. Droga bat da, eta ezin da laga. Iaz ez nintzen irten, eta aurten ere seguruenik ez naiz irtengo. Ezin dut sokamuturra ikusi! Inbidia handia ematen dit, eta ikusteko soilik, nahiago dut kalera ez irtetea. Iaz bizikletaz ibiltzera joan nintzen. Nik badakit sokamuturra ikustera joaten banaiz, ordubete baino lehenago zezenaren aurrean korrika ibiliko naizela. Etxekoak ere ez dira lasai egoten, eta inor haserretu baino lehen, nahiago dut sokamuturra amaitzen denean irtetea kalera.

**2. Zer sentitzen duzu zezenaren aurrean?**

Adrenalina eta emozioa. Bihotza abiada bizian jartzen zaizu eta oso emozionantea da. Gainera, zenbat eta gertuago ikusi zezena, emozio hori handitu egiten da, eta neurria hartzen jakin behar da. Entzierroetan saltaka egitean ere gauza bera sentitzen da. Iruñeko San Ferminetan ere ibili izan naiz zezenen aurrean, eta emozioa izugarria da. Behin, Jose Antonio Gorostiza "Watson" eta biok Iruñera bizikletaz joateko plana egin genuen. Entzierroan korrika egin,

eta gero berriz bizikletaz itzultzea zen gure asmoa. Irteera hori prestatzen zebilela istripua izan zuen Deban, eta hil egin zen. Hari ere asko gustatzen zitzaion entzierroa.

3. Zein da zezenaren aurrean korrika egiteko sekretua?

Zezena korrika hasten denean ziztu bizian irteten da, hau da, baserritarrak akuiluarekin eragiten dionean. Orduan badakizu berehala alde egin behar duzula zezenaren ibilbidetik, bestela, apurka-apurka baztertzen joaten bazara, harrapatu egingo zaitu. Mugimendu azkarrak egin behar dira. Niri kalearen bigarren zatian korrika egitea gustatzen zait, zezena apur bat nekatu denean. Zezenak erritmo finkoa hartzen duen unean posible da bere aurretik korrika egitea, baserritarrak akuiluarekin berriz eragiten ez badio, behintzat.

4. Izan duzu sustorik?

Bai, eta bi handiak, gainera! Lehenengoa San Frantzisko iturri inguruan izan zen. Aldapa dago, eta espazioa ere txikiagoa da, eta errekorteak egitea gehiago kostatzen da. Zezenak goraka bota ninduen, eta erortzean postontziaren kontra sekulako kolpea hartu nuen. Hankako tibia eta peronea hautsi nituen, eta belarria ere txikituta geratu zitzaidan. Mendarora eraman ninduten, eta handik Donostiara. Medikuak beldurtu egin ziren, belarritik eta ahotik odol asko botatzen nuelako. Lokartu egin ninduten berehala, eta esnatu nintzenerako ebakuntza guztia eginda zeukaten. Beste sustoa orain dela bi urte izan nuen. Ez dakit nola, zezena gainera etorri zen eta sokarekin trabatuta geratu nintzen. Ez zidan adarkadarik eman, baina behin eta berriz zapaldu ninduen. Saihetsak puskatu zizkidan, eta kasu horietan birika zulatzeko arriskua egoten da. Donostiako ospitalera eraman ninduten, baina zorionez ez nuen horrelakorik eduki. Hala ere, ez diot zezenari beldurrik hartu, eta oraindik sokamuturrera irteteko gogoa sentitzen dut.

5. Imajinatzen dituzu sanbartolomeak sokamuturrik gabe?

Ez, ez ziren sanbartolomeak izango. Plazako zezenketek eta sokamuturrak ez daukate zerikusirik. Sokamuturrean ere zezenak sufrituko du, noski, baina azkenerako berak ere hartzen du kalean korrika egiteko trebetasuna. Zezenketak, ordea, toreatzailearen ikuskizun hutsa dira, eta badakigu zer dagoen. Niri sokamuturretik gehien gustatzen zaidana, herri guztiak parte hartzea da. Jende asko egoten da, oso popularra da eta zezenketak ez dauka horrelakorik.

6. Entzierroak ala sokamuturra?

Sokamuturra gustatzen zait gehiago. Entzierroan kalea bakarrik daukazu, eta sokamuturra askoz gehiago da. Plaza daukazu, kalea, portalak, iturri ingurua… Entzierroan adrenalina askoz gehiago dago, ez dago ihes egiteko aukerarik. Sokamuturrean ihes egiteko aukera gehiago dago. Askotan hori sentitzea ere ez da ona, izan ere, lasaiegi egoteko arriskua egoten delako. Lasai zaude ihes egiteko aukera duzulako, eta konturatu orduko zezena gainean daukazu.

7. Urte asko daramatzu sokamuturrean parte hartzen. Denbora horretan asko aldatu da sokamuturra?

Lehen gehiago egiten zen korrika kalean, baina orain dela urte batzuk errekortatzaileak agertu ziren, eta horiek protagonismo handia hartu dute.

## “32 urtetan arropa berarekin egin dut korrika sokamuturrean”

## IGNACIO PEREZ

1. Noiz hasi zinen sokamuturrean parte hartzen?

18 urte nituenean irten nintzen lehenengo aldiz, eta ordutik aurrera, jaiak iristeko desiratzen pasatzen nuen urtea, sokamuturrean parte hartzeko irrikaz. 32 urte eman ditut sokamuturrean korrika, eta orain dela bi urte izan zen azkena. Pare bat urtetan ez nintzen egon San Bartolome jaietan, Alemanian ari nintzelako lanean, eta beste urte batean ere kale egin nuen, baina bestela ez dut inoiz hutsik egin.

2. Gaupasa eginda ala goiz erretiratuta joaten zinen gaztetan sokamuturrera?

Beti ondo lo eginda. Zezenaren aurrean korrika egiteko fisikoki ondo egotea ezinbestekoa da. Guri korrika egitea gustatzen zitzaigun, eta nire ustez, lehengo sokamuturra lehen ez zen gaur egun bezalakoa. Garai hartan jendeak zatika egiten zuen korrika. Batzuek Herriko Antzoki aldetik King-Kong ingurura egiten zuten, eta San Frantzisko kaleko balkoi guztiak jendez beteta egoten ziren. Gero, King-Kong ingurutik Plaza Handiraino egiten genuen korrika, eta handik Santa Ana eta Errosario kaleetara. Gaur egun San Frantzisko iturri inguruan eta Plaza Handian denbora luzez edukitzen dute zezena, eta niri hori ez zait hainbeste gustatzen. Garai hartako zezenak ere desberdinak ziren. Indartsuagoak zirela esango nuke, eta korrika gehiago egiten zuten. Orain traba artean ibiltzeko prestatutako zezenak dira, jarleku artean, arkupeetan, eskaileretan… Desberdina da.

3. Herriko zein zonalde gustatzen zaizu gehien korrika egiteko?

Madalako ingurunea gaur egun ez zait batere gustatzen. Traba gehiegi dago: parkea, lorategiak, jarlekuak… San Frantzisko iturri inguruan gauza bera gertatzen da, eta Plaza Handiko arkupeek eta jarlekuek ere traba egiten dute. Zona horietan min hartzeko arrisku handia dago. Niri kaleetan korrika egitea gustatzen zait. Lehen, kaleetako balkoi guztiak jendez beteta egoten ziren, eta gaur egun zezena ez dute apenas kaleetara bideratzen. Nik ezagutu nuenarekin alderatuta, gaur egungo sokamuturrak ez dauka zerikusirik, eta niri garai hartakoa gehiago gustatzen zitzaidan.



*Ignacio Perez, zezena zirikatzen Madalan.*

**4. Korrika egiteko jantziari buruz ere baduzu zerbait kontatzeko, ezta?**
32 urtetan arropa berberarekin egin dut korrika sokamuturrean. Praka bakeroak puskatu egin zitzaizkidan, eta pena ematen zidan botatzea. Belaunetatik moztu nituen, baina sokamuturrean ibiltzeko ez ziren batere erosoak, eta apur bat goragotik moztea erabaki nuen. Gero berriz hondatu zitzaizkidan, eta lagun baten amak konpondu zizkidan. Motz-motz geratu ziren, eta alkandorarekin prakak ikusi ere ez ziren egiten. Aitarena zen alkandora eta luze neukan. Batzuk uste zuten alkandoraren azpian ez neukala prakarik.
**5. Zer da zuretzat sokamuturra?**
Zezenaren aurrean korrika egitea, eta adarrak ipurdian sentitzea izugarria da. Zezena dena ematen doa, eta zu zeu ere topera zoaz. Errespetu handiz begiratu behar zaio zezenari, eta oso garrantzitsua da uneoro zezena non dagoen ikustea. Jende askok esaten dit oso gertu ibiltzen naizela, baina zezena ez baduzu ikusten, edozein unetan agertuko zaizu gainean, edo bestela, jendeak zapalduko zaitu.
**6. Imajinatzen dituzu sanbartolomeak sokamuturrik gabe?**
Ez lirateke jaiak izango. Orain dela bi urte zezena ibaira erortzen ikusi nuen, eta gogorra egin zitzaidan. Ezin nuen begiratu ere egin. Zezena gure aldera etortzeko zirikatzen hasi nintzen, baina ibaira egin zuen salto. Izugarria izan zen. Zezenak neurri batean sufritzen du sokamuturrean, baina ez da zezenketen modukoa. Zezenak hiltzeak pena ematen dit, dudarik gabe, eta ez nago horren alde, baina sokamuturra ezin da horrekin konparatu. Toreoa ikusgarria izan daiteke, baina zezenari ezpatak sartu gabe.
**7. Elgoibarren bakarrik ala beste herrietan ere ibili izan zara zezen aurrean korrika?**
Beste herri batzuetara ere joan izan naiz. Iruñeko San Ferminetako entzierroan ere egin nuen korrika behin, eta Deban ere bai, baina entzierroa gehiegizkoa da niretzat, emozio gehiegi dauka. Entzierroa oso gauza serioa dela konturatu nintzen. Sokamuturra ere serioa da, baina sokamuturrean beti dago ihesbidea. Hala ere, sokamuturrean jende gazteegia ibiltzen dela iruditzen zait. Gu ere gazte hasi ginen, baina gaur egun umeak ikusten dira eta oso arriskutsua da. Zezenari berdin zaio aurrean nor dagoen, eta egunen baten ezbeharren bat gertatuko da. Neurri zorrotzagoak hartu beharko lirateke. Zezenak norbait harrapatzen duenean jendeak barre egiten du, eta ez da barre egiteko kontua.
**8. Izan duzu sekula sustorik zezenaren aurrean?**
Ez dut inoiz gauza larririk izan. Behin izan nuen susto bat, baina ez zitzaidan ezer gertatu. Plaza Handi inguruan izan zen. Zezena zetorren eta bolatokirantz hasi nintzen korrika, baina ikusi nuen ezin nuela ihes egin. Orduan, balkoi bati heldu nion, eta zezenak hanketan jo zidan. Erori egin nintzen, baina kolpea bakarrik izan zen. Orain dela bi urte, zezenak Iñaki Konde nola harrapatu zuen ikusi nuen, eta horrek pentsarazi egin zidan. Zezena bere gainean ikusten nuen, eta ezin nuen ezer egin. Gaizki pasatu nuen. Iñaki lagun batekin hizketan zegoen, sokamuturraren eremutik apur bat aparte, gainera. Zezena gerturatu zitzaionean, erori egin zen, eta zezenari aurreko bi hankak sokarekin trabatu zitzaizkion. Zezena mugitzen ahalegintzen nintzen, eta askatzen saiatzen zenean Iñaki zapaltzen zuen. Oso ondo gogoratzen dut. Minutu bat izango zen gehienez, baina luze egin zitzaidan. Etxean ere ezbehar bat izan genuen, eta hori ikusi nuenean, azken urtea izango zela erabaki nuen. Orain ikustera ere ez naiz irteten, ezin dut sokamuturra barandatik ikusi.

## ANDER IZAGIRRE — "Zezena nola mugitzen den jakitea da kontua"



**1. Noiz hasi zinen sokamuturrean parte hartzen?**
Umetan zezen txikien aurrean ibiltzea gustatzen zitzaidan. Baserri auzoetako jaietara joaten ginen, eta han ibiltzen nintzen zezenen aurrean. Gerora, aitarekin hasi nintzen sokamuturra ikustera joaten. Umetan urrutitik ikusten nuen, eta poliki-poliki konfiantza hartu nuen. Orain zezenaren aurrera irteten naiz. Errespetuz beti, baina zezenarengandik gertu ibiltzea gustatzen zait.
**2. Zein da zezenaren aurrean ibiltzeko sekretua?**
Zezena nola mugitzen den jakitea garrantzitsua da, eta berak eman ezin dituen pausoak ematea da kontua. Hori ikasi egiten da. Mugimendu azkarrak eginez gero, zezenak ezin du jarraitu eta hori polita izaten da. Batzuek nahiago izaten dute kalean korrika egitea, eta beste batzuei gehiago gustatzen zaie errekorteak egitea. Zezenaren aurrean ibiltzea norberaren araberakoa da. Ni gehiago naiz Plaza erdian ibiltzekoa, kalean baino.
**3. Zer sentitzen duzu zezenaren aurrean?**
Gustura sentitzen naiz. Emozioa sentitzen dut, baina beldurrik ez. Errespetuz ibiltzen naiz beti.
**4. Harrapatu zaitu noizbait zezenak?**
Bai, harrapatu izan nau. Iaz, Plazan hasi nintzen zezenaren aurrean errekorteak egiten, eta labaindu egin nintzen. Baina horrelako-

etan baserritarrek berehala egiten diote sokatik tira zezenari, eta ez da arrisku handirik egoten. Nire ustez arriskutsuagoa da kalean korrika zoazela harrapatzen bazaitu.

**5. Zezen ikuskizunen kontrako mugimendu asko sortu dira azkenaldian. Zein da zure iritzia?**

Ingurugiro ikasketak egin ditut, eta animaliak izugarri gustatzen zaizkit. Zezenketak ez zaizkit batere gustatzen, eta horren kontra nago, baina sokamuturra desberdin ikusten dut. Askok esaten didate kontraesana dagoela horretan, eta, bai, egon daiteke, baina Elgoibarko kasuan, sokamuturra gustuko dut. Elgoibarren bakarrik irteten naiz zezen aurrera, ez naiz beste herrietako jaietara joaten zezenen aurrean ibiltzera.

## “Bakoitzak bere distantzian gozatzen du sokamuturraz”

### IMANOL SANTOS



**1. Gogoratzen duzu sokamuturrera irten zinen lehenengo aldia?**

Aspaldi izan zen. Ume umea nintzela hasi nintzen sokamuturrera joaten aitarekin. Hasieran urrutitik ikusten nuen, eta poliki-poliki hasi nintzen gerturatzen.

**2. Zein da zezenaren aurrean horren lasai ibiltzeko sekretua?**

Ez dago sekreturik. Garrantzitsuena beldurrik ez edukitzea da, baina bakoitzak bere distantzian gozatzen du. Seguru nago urrun dagoen batek nik beste gozatzen duela sokamuturraz, edo gehiago. Niri gertu ibiltzea gustatzen zait, baina batez ere, Elgoibarko sokamuturrean egoten den giroa gustatzen zait.

**3. Zein da sokamuturrean ibiltzeko gehien gustatzen zaizun kalea edo lekua?**

Kaleak gustatzen zaizkit. Zezenaren aurrean korrika egitea oso emozionantea da. Zailagoa ere bada, fisikoki indarra behar delako. Elgoibarko sokamuturrak denerako aukera ematen du: kalean korrika egiteko, edo zezenaren aurrean errekorte azkarrak egiteko.

**4. Azken urteetan erdi lesionatuta ere irten izan zara…**

Bai, sokamuturra huts egin ezinezko ekintza da niretzat. Lesioren bat dudanean apur bat urrutiago ibiltzen naiz, baina ezin naiz etxean geratu.

**5. Zezenaren aurrean bueltaka hasten zarenean ikusleen txaloak ere jaso izan dituzu. Zer sentitzen duzu une horretan?**

15 urte nituenean harrituta eta pozik hartzen nituen, baina orain ez diot aparteko garrantzirik ematen.

**6. Izan duzu sustorik zezenaren aurrean?**

Bai, eskumuturra hautsi nuen behin. Sokarekin trabatu nintzen, eta erortzean hartu nuen kolpea. Hamalau zatitan apurtu zitzaidan eskumuturra. Astebete egin nuen ospitalean, eta bost hilabete inguru behar izan nituen errekuperatzeko. Horrelakoak, baina, ez dira ohikoak izaten. Iñaki Kondek bi aldiz izan du suerte txarra, eta nik behin, baina bestela ez da gauza handirik gertatzen. Beste behin, Debako entzierroan zezenak gainetik pasatu zitzaizkidan.

**7. Beste herrietako jaietara ere joaten zara zezenen aurrean ibiltzera?**

Deban ibili izan naiz, eta iaz, Kataluniako herri batera joan nintzen. Baina zalantzarik gabe Elgoibarko sokamuturra gustatzen zait gehien. Niretzako sanbartolomeak %75ean sokamuturra dira. Elgoibarren jende pila batek hartzen du parte: gertu dagoenak, urrun eta urduri dagoenak, balkoian dagoenak… Jende hori guztia egongo ez balitz sokamuturrak ez luke aurrera jarraituko, baina, aldiz, gertu inor ibiliko ez balitz baina jende hori guztia ikustera joango balitz, sokamuturrak aurrera egingo luke. Jende asko biltze horrek egiten du polita sokamuturra.

**8. Imajinatzen dituzu sanbartolomeak sokamuturrik gabe?**

Gaur egun ez, behintzat. Gertatu daiteke, eta gertatzen bada ba onartuko dugu. Ulertzen dut zezenketen kontra daudenen postura, baina niretzako sokamuturra desberdina da. Argi dago zezena bere kabuz ez litzatekeela kalera etorriko, beraz, zerbait sufritzen duela argi dago, baina ez zezenketetan bezala.

**9. Zezenak ihes egin izan duenean bila joan izan zara…**

Ni eta beste asko joan izan gara, bai. Kasu horietan arriskutsuena norbait harrapatzea da. Zezena Plazan baldin badago, herritarrak Madalan lasai dabiltza, normala den bezala, eta azkenekoz horrela harrapatu zuen norbait. Dena dela, beti dago adinekoren bat sokamuturraren orduan ogia erostera joaten dena! Baina zorionez, ez da ezer pasatzen.

**10. Etxekoak lasai egoten dira zezenarengandik hain gertu ikusten zaituztenean?**

Bai, ohituta daude. Aita ere beti ibili izan da, eta oraindik ibiltzen da. Amari ere gustatzen zaio, eta arreba ere irteten da. Adiz, San Ferminetako entzierroan parte hartzea ez litzaieke gustatuko. Niri deitzen dit horrek ere, baina ez naiz sekula egon. Jende gehiegi egoten da, eta hori nahiko arriskutsua iruditzen zait.


MADIGAN´S
JOKU ARETOA
Bernardo Ezenarro, 2 behea - Tel.: 943 531 557
Jai zoriontsuak!
GOSARI BEREZIAK
ETA
PINTXO AUKERA EDERRAK!
ETOR ZAITEZ GURE JOKU ARETOA EZAGUTZERA
Egunero goizeko 7:00etatik gaueko 00:30etara aurkituko gaituzu


Altzolako Urak, bezero eta bizilagunei
San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue!
Jai zoriontsuak
ALZOLA
www.alzola.com

MILAR BIRE

Ubitarte, 11
Tel.: 943 741 487
Elgoibar

Telebistak, DVD, TDT, kamerak, argazkiak, GPS, memoria biltegiak, informatika, irakurgailu digitalak, audioa, Hi-Hi, telefonoak, hozkailuak, garbigailuak... **Ondo pasa jaiak!!**

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA
BARAZKIAK

JAIAK ONDO PASA!

*Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu*

EUSKAL BASERRI

Ortutik mahaira!
Kalitatea bermatua!

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

# EUKENE GIL, JOSU AIZPURUA eta JULEN ANSOLA

**JOAN ZEN URTEKO GAZTEEN EGUNEKO KOADRILA IRABAZLEKOAK**

## “Ea aurten inor ausartzen den guri lehen postua kentzeko ahalegina egiten ”




**Joan zen urteko jaietako nobedadea izan zen Gazte Asanbladak herriko beste gazte batzuekin batera antolatutako Gazteen Eguna. Batez ere erreka jaitsiera izango dute akorduan parte hartu ez zutenek, baina hori baino gehiago ere egin behar izan zuten partaideek. Marmitako lehiaketarekin hasi zuten eguna iaz; bazkarian norberak prestatutakoa jan ostean iritsi zen errekara salto egiteko ordua eta goizaldeko ordu txikietan soka saltorako dohainak ere erakutsi behar izan zituzten parte hartzaileek. Proba guztietan batutako puntuek erabaki zuten talde irabazlea zein izan zen. Talde horrekin egon da BARREN. Aurten ere irabazteko asmotan dago itxuraz koadrila, eta herriko beste gazteei erronka jo diete. Irabazi edo ez, ondo pasatuko dutela badakite.**

*Sirena txalupa gainean, erreka jaitsieran.*



**Nola gogoratzen duzue joan zen urteko Gazteen Eguna?**
Lagun arteko momentuez gogoratzen gara, eta han zegoen giroaz: gazteak parte hartzen, eguraldia lagun; polita izan zen eguna orokorrean. Gainera poliki-poliki joan ginen berotzen. Guk hasiera batean erreka jaitsieran bakarrik hartu behar genuen parte; gero erabaki genuen bazkarian ere parte hartzea eta gerora, soka saltoan ere egitea.

**Zer dela eta eman zenuten izena?**
Ba Gazteen Egunean beti egiten dugu zeozer lagun artean, eta iaz koadrilako lagun batzuk egun hori antolatzen zihardutenez, eurei entzunda animatu ginen. Eta ez ginen damutu; oso egun polita izan zen.

**Nola osatu zenuten taldea? Nola antolatu zineten?**
Koadrilakoak, neskak, mutilak, eta batzuen bikoteak ere animatu ziren. Denetik pixka bat. Gainera, gure artetik espero ez zuten lagunek ere eman zuten izena. Baina nahiko ondo banatu ginen proba bakoitzean. Ez genuen denok dena egin. Batzuk sukaldean, besteak errekan, besteak saltoka... denontzako lana egon zen.

**Eguneko momentu bakar bat aipatzekotan, zein aukeratuko zenukete?**
Erreka jaitsiera izan zen eguneko unerik potenteena. Gazte pila batek hartu zuten parte, eta ikusten ere, bazirudien herri osoa han zegoela. Demasa izan zen. Baina bestela, momentu bat beharrean, orokorrean egunean zehar egondako gazte-giro hura gogoratzen dugu guk.

**Egun osoan besteen aurrean gauzak nola egiten diren erakutsi beharrak, sortu zizuen presiorik edo lotsarik momenturen batean?**
Lotsarik ez, eta presioa… beno. Egia da marmitakoa egiten genbiltzan bitartean, jende pila bat ibili zela inguruan bueltaka. Denak marmitakoa nola egin behar zen esanez, bakoitza bere sekretuak erakutsi nahian, hobeto nola egin azaldu nahian… baina ez, presiorik ere ez zegoen. Bakoitzak genekiena egiten, primeran pasatu genuen.

**Akorduan izango dituzue iazko momenturik barregarrienak.**
Beno, ez zen momentu bakarra izan, baina marmitako lehiaketan adibidez, inguruko batzuekin izandako pikearen kontura nahikoa barre egin genuen, egia esanda. Oraindik ere gogoratzen diegu haiei, geuk irabazi izana.

> **"Egunean zehar egon zen gazte giro hura gogoratzen dugu"**

Eta horrez gain, berak ez du ziurrenik berdina pentsatuko, baina koadrilako Amaiarekin, txalupa gainean joan zenarekin, nahikoa barre egin genuen. Amaia sirena jantzita zihoan, eta horretarako, eskuak eta hankak lotu genizkion. Maialenek guraizeak zeramatzan poltsikoan, bukaerara iristean soka mozteko, baina iritsitakoan konturatu zen errekan galdu zituela. Imajinatu nola zegoen Amaia! Eta beno, jaitsieran ere, txalupa apurtzen hasi zenean, ikustekoa zen nola eutsi zion goian. Makalekoa izan zen eskuak eta hankak lotuta bukaeraraino iristea.

**Eta aurten, parte hartzeko, hasiera batean duda dezente izan omen duzue, ezta?**
Txiki Egunaren hurrengo egunean zein egoeratan egongo garen, horrek sortzen digu duda guri. Baina beno, hartuko dugu bai, hartuko dugu parte aurten ere; gainera marmitakoa beharrean paella egin beharrak, are eta gehiago piztu digu parte hartzeko gogoa.

**Beno, eta behin parte hartuta, irabazteko asmotan gainera**
Bai, bai. Eta gainera, paella lehiaketa irabazita daukagula, egon seguru. Koadrilan paellak egiten onenetan onena den *chefa* daukagu, beraz hura konbentzitzearekin nahikoa daukagu, irabazteko. Iaz gehiegi pentsatu gabe irabazi genuen; ea aurten inor ausartzen den guri lehenengo postu hura kentzeko ahalegina egiten. Ez zaie erraza egingo.

**Ainhoa Mendibil Artetxe**

*Ilazko sari banaketaren ostean, txosnetan.*



# Beste urte batez, Gune Askea Madalan

Aurten ere lau txosna jarriko ditu Jai Batzordeak Madalan, eta Gaztetxea ere zabalik egongo da. Abuztuaren 22an Gaztetxearen urteurrenarekin hasi, eta abuztuaren 27an bukatuko dira jaiak Gune Askean. Berritasunez gain, ez dira faltako Gazteen Eguneko erreka jaitsiera, ezta Txiki Egunean herritarrak dantzan jartzen dituen erromeria ere. Jai Batzordeak jaiak ondo pasatzeko eta ez pasatzeko deia egin die herritarrei. Bide batez, jai-egunetan denek ondo pasatu dezaten lan handia egoten denez, egun horien antolakuntza lanetan laguntzeko gonbitea egin die.



**AMNISTIA EGUNA**

Aldaketa nagusi bat dakar aurtengoan Madalako Jai Batzordearen egitarauak, Txiki Egunean izan ohi zen preso eta iheslarien aldeko bazkaria egunez aldatu dute-eta. Jai Batzordeak jakinarazi duenez, urtez urte Txiki Eguneko bazkarian gero eta jende gutxiago agertzen zela kontuan hartuta, eta aurten Elgoibarko Izarra kultur elkarteak egun horretarako herri bazkaria antolatzeko asmoa zuela jakinda, Amnistia Eguna abuztuaren 23rako antolatu dute. Euskal preso eta iheslariek eta beraien senideek bizi duten egoera salatu nahi dute, eta horien eskubide zibil eta politikoen alde antolatutako ekintzetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Era berean, aurtengoan Mikel Ibañez modu berezian gogoratuko dutela nabarmendu dute. Antolatzaileen iritziz, espainiar estatuak aurrera daraman espetxe politikak hil zuen Mikel, eta hori ez ahazteko eskatu diete herritarrei.

**22 ASTELEHENA Gaztetxearen Urteurrena**
18:00 Saltsa Ikastaroa Gaztetxean
**Ondoren,** poteoa
21:00 Festa afro-kubatarra Gaztetxean, **eta ondoren,** dantza lehiaketa

**23 MARTITZENA Amnistia Eguna**
15:00 Bazkaria
19:00 Txosnen irekiera
**Ondoren,** bertso poteoa txosnetan
23:30 Elektrotxarangarekin kalejira
**6:00etatik aurrera,** Gaztetxea zabalik

**24 EGUAZTENA**
22:00 Egene taldearen kontzertua

**25 EGUENA**
20:00 Laket taldearekin dantzaldia
00:00 Laket taldearekin dantzaldia

**26 BARIXAKUA Gazteen Eguna**
13:00 Paella lehiaketa
15:00 Bazkaria
19:00 Balsa jaitsiera
22:30 Kontzertu sorpresa
00:00 Sari Banaketa
00:30 Mp5 taldearen kontzertua
**6:00etatik aurrera,** Gaztetxea zabalik

**27 ZAPATUA**
22:30 Kontzertuak Gaztetxean
**6:00etatik aurrera,** Gaztetxea zabalik

Ondo pasa jaiak!
IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

ZUBACOR S.L.
Patxi Beitia Arriola
ZUZENDARI GERENTEA
Ibaiarte kalea, 11
Tel.: 943 740 844
Faxa: 943 742 666
60 posta kutxa
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
www.zubacor.com
zubacor@zubacor.com

AHOLKULARITZA
BIKAIN
ASESORIA
Zerga-aholkularitza
Lan-aholkularitza
Kontabilitate aholkularitza
Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@fonocom.es
Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* **!**









**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK**

- ***Euskarazko eta gaztelerazko klaseak***
- ***Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak***

**LEKUALDAKETA**

**San Frantzisko, 52 behea**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

GOKI ERREFORMAK S.L.
OBRAK ETA PROIEKTUAK







Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87
goki@gokierreformak.com

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel. 943 76 53 42 - Faxa 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es

**Fatxadak • Teilatuak**
**Bainugelak • Sukaldeak**
**Igogailuak**
**Gremioen koordinakuntza**

www.gokierreformak.net

Ondo pasa San Bartolome jaiak!


TELLABIDE
Iturgintza
Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak
Azpilgoeta 7, behea
Mendaro
Tel.: 943 755 062
607 755 062

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
*www.biena.es*
*info@biena.es*

**Imar**
Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
*www.fjlodoso.euskalnet.net*

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Ongi**
Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea
☎ 943 25 45 22

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Sarrailagintza

**Giltzak**
Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
*www.giltzak.com*

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Carranza**
Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87